

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2016ko irailaren 22a, 494 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ANDOAINARRA EUSKARAZ EGUNA

Asteburua hitzorduz beterik dator Andoain eta Urnietara

Andoainen eta Urnietan hitzorduak aukeran izango dira asteburu honetan.

Gustuak adina ekitaldi iragarrita daude. Kanpora joateko asmoa duenak hamaika ekimen interesgarri galduko du, ostiraletik igandera.

EUSKARA AHOAN ANDOAINEN

Andoaindarrak euskaraz egunaren lehen edizioa larunbat honetan izango da, Goikoplazan. Euskararen erabilera apalarekin kezkatuta, Udalak sustaturiko Euskararen aholku batzordeak hilabeteak daramatza larunbateko ospakizuna prestatzen. Egitaraua hasiera batean xumeagoa bazen ere, elkarte ezberdinen inplikazioari esker goizetik gauera bitarteko hamaika hizordua iragarrita daude.

JAIEN USAINA URNIETAN

Urnietan Sanmielak ate joka daude. Dagoeneko herritar ugari dabil ekitaldi ezberdinen prestaketa lanetan. Irailaren 28ko txupinazoa iritsi aurretik, kultur jarduera interesgarrirez gozatzeko aukera izango da, asteburu osoan zehar.



Urnietan antzerkia, musika eta dantza ikuskizunak izango dira asteburu honetan: Gabon Txirrita eta 400 istorio.

Andoain

Irailak 23, ostirala

19:00 Larramendi antzerki taldeari buruz hitzaldia Basteron.

Irailak 24, larunbata

10:00 Andoaindarrak Euskaraz I. eguna, egun osokoa Goikoplazan.

20:00 Euskal Herriko Sagardo txapelketa herrikoia, Zumea plazan.

Irailak 25, igandea

09:45 "Bi andoaindar, eliza bat" irteera Goikoplazatik abiatuta.

Urnietak

Irailak 23, ostirala

22:00 Gabon Txirrita kiroldegian. Azken sarrerak salgai, 21:00etan.

Irailak 24, larunbata

18:00 Dantzaldia Plazido Muxikan.

20:00 400 Istorio kiroldegian. Azken sarrerak salgai, 19:00etan.

21:30 Bertso afaria Oianumen.

Irailak 25, igandea

09:00 Pintura lehiaketa.

10:00 Extremadurako jaiaren hasiera.

Andoain, Urnietak

Irailak 25, igandea

Lehendakaritzarako Euskadi mailako hauteskundeak. Igande iluntzean, emaitzak jaso ahala, argitara emango dira Aiurri.eus webgunean.

Igandea iritsi bitarte, hauteskondeei loturiko informazioa webgunean bertan aurki daiteke "Gure gaiak" atalean. Bertan dagoeneko irakurgai daude alderdi nagusieta-ko ordezkarien elkarrizketak, hauexenak: Marijose Izagirre (EAJ-PNV), Maider Lainez (PSE-EE), Tere Santana (Elkarrekin Podemos) eta Jon Zulueta (EH Bildu).

Lurdes eta Xabier gogoan



Plaka ipini dute etxeren atarian.

Aurrerantzean Lurdes Iriondo eta Xabier Leteren arrastoaren atzetik dabilzan bisitariak San Juan plazan plaka aurkituko dute, bizi-toki izan zutenaren atarian.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Sanmielak hastear

[URNIETA, GEHIGARRIA]

Egape ikastola

Egape ikastolak 50. urteurreneko ospakizunei ekin zien aurreko asteburuan, ekitaldi instituzionalarekin eta Kantujirarekin.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

istorio

400 "musika, dantza... zuzenean"

Irailak 24, larunbata. 20:00
Urnietako kiroldegia

Sarrerak salgai Saroben. Maximo Iurramendi, 2. Urnietak

Laguntzaileak:

Kolaboratzaileak:

Antolatzaileak:

EGAPE IKASTOLAK 50 URTE

Urteurrenaren hasiera-ekitaldia

Joan zen irailaren 16an hasiera eman zioten ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko lehen ekitaldiari, Egape ikastolako pilotalekuan bertan egin zutena. Erakunde ezberdinetako ordezkariekin batera, ikastola-

ren ibilbidean zerikusia izan duten hainbat eragilek parte hartu zuten. Egapek 50 urte betetzen ditu ikasturte honetan, eta ikasturte osoan zehar ospakizun gehiago izango dira.

Ostiraleko ekitaldiak protagonista ugari izan zituen: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu **Cristina Uriarte** anderea, Hezkuntza saileko beste hainbat kargudunekin batera, **Mikel Pagola** Urnietako alkatea alderdi guztietako zinegotziekin batera, herriko beste ikastetxe-etako eta Hernaniko BHIko zuzendaritza taldeak. **Benantzio Laskibar**, **Anselmo Unanue**, **Xabina Arruarte** eta **Xabier Larretxea**, Egapeko lehen junta osatu zutenak ere bertan izan ziren eta omenaldi xumea jaso zuten. Duela urte batzuk hil zen **Maria Arizmendi**ekin batera haiek izan ziren ikastolaren sortzaileak.

Ezin ahaztu ibilbide honetan protagonista izan ziren irakasle eta ikasleak. Irakasleen artean, egungo zuzendari diren **Itsaso Gomez** eta **Manu Mariasek**



Agintarien eta herriko hainbat eragileren bisitaldia jaso zuten Egape ikastolako kideek, 50. urteurreneko ekitaldi instituzionallean.

hartu zuten hitza, ikastolaren egungo egoeraren eta etorkizuneko egitasmoen berri emateko. Baita ere, hitz batzuk zuzendu zizkieten bertaratutako ei, lehen irakasle izen zen **Ma-**

ripi Sarasolak eta lehenengo zuzendari izandako **Juxto Egañak**. Ikasleek berriz, kantu, dantza, bertso eta txalaparta emanaldiekin edertu zuten ekitaldia.



Sabina Arruarte, Anselmo Unanue, Xabier Larretxea eta Benantzio Laskibar, Maria Arizmendiaren batera, sorrerako juntako kideak omendu zituzten, ekitaldian.

Ekitaldian aurkeztu zen 50. urteurrenerako egindako abestia ere. Ikasleek abestu zuten. **Andoni Otamendi** bertsolariarena du letra, eta musika berriz, **Xabi San Sebastian** abeslariare-

na. Ordubetik luzeko ekitaldiaren ondoren eskainitako luntxarekin eman zitzaion amaiera ikastolaren urrezko urtearen lehen ekitaldiari. Etorriko dira gehiago.

Sanmielak

2016
URNIETA

Urriak 2

X. Iñistor jaia

Jakutegi plazan

12:30 X. Maldan-gorako Iñistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Bertsolariak.
Uxue Alberdi (Getaria), Miren Amuriza (Berriz), Unai Muñoa (Lasarte-Oria) eta Ander Lizarralde (Oiartzun). Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

17:30 "Urnietar Prestu" 2016 izendapena.
Jokin Lizeaga korrikalaria izango da omendua.

19:00 VIII. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.

Antolatzaileak:
Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra, Manuel Larrañendi Kultur Bazkonekoa.

Laguntzaileak:
Txarbolin bistulari banda, Egape Dantza Taldea.

Babesleak:
Urnietako Udala, Aizuri zotzaria.

EGAPE IKASTOLAK 50 URTE

Kantujira herrian barrena

Aurrerantzean Ez Dok Amairu mugimenduko Lurdes Iriondo eta Xabier Leteren arrastoaren atzetik dabiltzan bisitariak San Juan plazan plaka eder bat aurkituko dute, euren bizitoki izan zen etxearen ata-

rian. Egape ikastolako kideekin eta beste herrietako kantuzaleekin batera, larunbat goizean Kantujira egin zuten Urnietan barrena, Aire ahizpak kantariekin batera.

Eguraldiak baldintzatu zuen Kantujiraren martxa eta, esaterako, Aire ahizpak taldearen goizeko emanaldia Kontzejupean eskaini zuten. Abestien artean, ikusleekin batera ozen abestu zuten Xalbadarren heriotzean kantu ezaguna.

Aurretik, Idiazabal kalean, musikariak zeramatzan kamioi baten atzetik kantuzaleak kalejiran ibili ziren. Egapeko guraso, ikasle eta langileekin batera, beste herrietatik etorritako kantuzale gehiago aritu zen.

PLAKA IPINI ZUTEN

Lurdes plastikako irakasle zela, Egape ikastolan ikasleekin batera egindako marrazki batean oinarrituta plaka ipini zuten honako esaldiarekin: "Euskal kantagintza berriaren aintzindari eta ikur, olerkari, antzerkigile, kultur eragile...".



Idiazabal kalean kantari aritu ziren Kantujirakoak, eguraldiak ahalbidetu zuen bitartean.



"Txori kantuzale ederrak nun ote zaudete kantari?" Leteren esaldi kuttuna ageri da plakan.



"Xalbadarren heriotzean" kantua bidez ikusgai dago aiurri.eus webgunean.



Aire ahizpak eguerdian kantari aritu ziren Kontzejupean, akordeoilariak lagunduta.

MITIN

IRAILAK 23
DONOSTIA
20:30EAN URDANETA KALEAN
ARTZAI ONAREN ATZEAN

DJAK EHBILDUBUSA FESTA

ARNALDO OTEGI
MADDALEN IRIARTE
JASONE AGIRRE
MIREN LARRION

JAJA

BOZKATU
ehbildu



ABUZTUAREN 31N HASITAKO IBILBIDEA IRAILAREN 15EAN IRITSI ZEN ANDOAINERA, PASAIKO ALBAOLARAKO BIDEAN

Gurdi bidea Burgos aldetik Gipuzkoara, eskualdean barrena

Pasaian Albaola itsas faktorian San Juan baleontziaren erreplika eraikitzen ari dira, garai bateko langintzari eutsi nahian. Mendeetan atzera eginez, baleontzi horietarako egurra gurdi bidez toki ezberdi-

netatik ekartzen zuten. Besteak beste, Burgos aldeko Cabaña Real aldetik. Abuztuaren 31n gurdi bide hura biziberritu zuten, irailaren 17a bitarte Gaztelatik Gipuzkoarako bidea eginez.

Irailaren 15ean iritsi zen Andoainera. Aiurrik Leitzaran haranean bat egin zuen espedizioarekin. Txapela parean, Enara Novillo Albaolako komunikazio arduradunak espedizioaren berri eman zuen: "Goizean aterara gara Leitzatik eta laster Otietara eta Andoainera iritsiko gara. Burgosetik abuztuaren 31n jarri ginen abian eta Donostia zeharkatu eta gero larunbatean amaituko dugu bidaia Pasaian, Albaolako itsas kultur faktorian.

Quintanar de la Sierran oraindik modu artesanalean egiten duten bikea eta alkitrana garraiatzen ari gara, San Juan baleontzia eraikitzeko beharrezkoa duguna. Aurten Donostia 2016 Europako Kultur hiriburutzat dela eta ekimena egitea erabaki da, Quintanar de la Sierrako Cabaña Real de Cabañeros elkartearekin eta Albaolarekin elkarlanean".



Leitzaran aldetik Urigain aldera iritsi zen espedizioa, eguerdi aldera.

HARRERA EZIN HOBEA

Novillok espediziokide guztien poza azpimarratu zuen: "Burgos, Araba eta Nafarroatik pasara eta oraintxe Gipuzkoan sartu gara. Bidean pozgarriena jendearen harrera izan da: Musika, dantzariak... festa zoragarriak antolatu dituzte. Haurrek, gazteek eta helduek benetako interesa

erakutsi dute; adineko heldu ugari emozionatu egiten dira iraganeko oroitzapenak biziberritu dituztelako. Ez genuen uste espedizioak hainbesteko arrakasta edukiko zuenik".

Ana Casado Zamorako Benavente herrikoa da. Miranda Ebron egin zuen bat espedizioarekin: "Ez naiz abeltzaina baina

"Bidean pozgarriena jendearen harrera izan da: Musika, dantzariak... festa zoragarriak antolatu dituzte"

Enara Novillo, Albaola

"Bihotzeraino iristen zaizkizun uneak ari gara bizitzten. Gozamina da ikustea umeez zenbateko ilusioarekin hartzen gaituzten"

Ana Casado, Cabaña Real

Cabaña Real de Cabañeros elkartearen kolaboratzailea naiz. Bihotzeraino iristen diren uneak ari gara bizitzen herri batera iristen garen bakoitzean. Gozamina da ikustea umeez zenbateko ilusioarekin hartzen gaituzten. Kupeletan zer daramagun, zer den alkitrana, zergatik hau eta zergatik hura, makina bat galdera egiten dizkigute".

Otietan Ana Carrere eta Andoingo Udalararen ongietorria jaso ondoren, espedizio osoak Urigainerako bidea hartu zuen. Abereek bertan igaro zuten gaua. Espediziokideek Irunberri elkartean bazkaldu eta afaldu ostean, Arrate pilotalekuko

azpialdean eta Santiagoko Bidearen aterpean lo egin zuten. Hurrengo goizean, 08:00etarako jada abian jarri ziren Urnietarako bidean, Leizotz industrigunetik aurrera. Errepidea hartu beharrean, Xoxoka aldera jo zuten, eta handik, herrigunerrantz kanposantuko bidetik behera. Tren geltokira hurbildu ziren, Hernani aldera abiatzeko. Urnietan, aurreko egunotan apenas zabaldu zen Gurdi Bidea bazetorrela zioen berririk. Espedizioa ere ez zen herri baretik igaro, eta azkenean, horrek denak Urnietako zeharkaldian ia inor hurbildu ez bildu izana eragin zuen.



Egurra garraiatu dute gurdiak hamazortzi eguneko espedizioan. Behean, Urigainera iristen.



Espediziokideak Otietara bidean. Behean, biharamunean Urnieta utzi eta Hernaniko bidean.



Urnieta jaietarako prest

2016, Sanmielak

EZ beti da EZ!

Eraso / Jarrera
matxistaren
bat ikusi, entzun
edo jasaten
baduzu,
ERANTZUN!!!



**Urnieta Udalak
gehigarri hau
argitaratuz,
jairik zoriontsuenak
opa dizkizue
urnietar guztiei**



Jaietan errespetuz gozatzeko deia egin dute Udalak eta herriko eragileek

UDA HONETAN HAINBAT HERRITAN GERTATU DIREN ERASO MATXISTEKIN KEZKATUTA, "EZ BETI DA EZ" IZENBURUPEAN KONTZIENTZIAZIO KANPAINA EGIN DUTE JAIEN EGITARAUAN. AURKEZPEN-EKITALDIAN KANPAINAREKIN BAT EGIN ZUTEN DENEK.



Urnietako jaiak, aurtengoan, asteburu bakarrean ospatuko dira. Aurkezpen ekitaldian, jaietan parte hartze aktiboa izateko eta errespetuz jokatzeko deia egin zieten herritarrei: "Parte har ezazue Sanmiel jaietz gozatzeko eta errespetua mantenduz. Erasoa matxistek ez dute tokirik Urnietan. Ez ditugu inon ikusi nahi; Urnietan ere ez", ozen aldarrikatu zuten.

5 egunez 70 ekitaldi iragarri dituzte, irailaren 28an hasi eta urriaren 2an amaituko direnak. Jai batzordeak osatu du egitaraua, eta Mikel Pagola alkateak herritarren izenean elkarte guztiei jaietako egitaraua osatzen emandako laguntzagatik esker ona adierazi zien: "Herriko elkarteek antolatuta, herritarrek bultzatutako eta herritarrei begiratutako festak osatzea lortu dutelako".

Jaiak hasi aurretik, alkateak gogoan hartu zituen "Gabon Txirrita" edota "400 istorio" jaien atariko ikuskizunak. Bi ikuskizunetarako sarrera batzuk geratzen direla jakinarazi zuen. Sarrera horiek eskuratu nahi dituenak ekitaldia hasi baino ordubete lehenago kiroldegiko leihatilan eskuratu ahal izango ditu. Lagun bakoitzak, gehienez ere bi sarrera erosi ahal izango ditu.



Pausoka elkarteko Maria Lesaka, Urnietako alkate Mikel Pagola eta Egape dantza taldeko Eva Perez izan ziren aurtengo jai egitarauaren aurkezleak.

TXEKOR JATE SOLIDARIOA PAUSOKAREN ALDE

Igandean (urriak 2), arratsaldeko 18:00etatik aurrera txekor jate solidarioa antolatuko dute, oraingoan Pausoka elkarteari laguntza emateko. Razio bakoitza euro batean salduta, behar bereziak dituzten hurrei laguntza emateko aukera ezin hobea izango da. Lortutako dirua errehabilitazio zentrorako "oso-osorik" joango da.

Maria Lesaka Pausoka taldeko ordezkaria eskertuta agertu zuen: "Eskerrak eman nahi dizkiogu, Aizkibel enpresari txekor emateagatik, eta bestetik, Urnietako gainerako elkartei eta Udalariko kontuan hartzeagatik".

JAIEN HASIERAKO TXUPINAZOA ETA OMENALDI EKITALDIA

Jai batzordeak hala erabakita, aurtengo txupinazoa **Antton Jauregik** botako du, urte askoan herriaren alde egin duen lanagatik. Horrez gain, alkateak iragarri zenez, San Miguel egunean Udalak egiten duen omenaldi ekitaldian aurtengo **Egape ikastola** aintzat hartuko da, ikasturte honetan 50. urteurrena ospatzen ari baita.

Bestalde, jaiak sortzen dituen eragozpenen aurrean, **Mikel Pagola** alkateak pazientzia eskatu zuen: "Eragozpenak sortuko dira, errepideak moztuko ditugu, jai gunean bizi diren bizilagunei arazoak sortuko dizkie... Bizilagunei pazientzia eta ulermena eskatu nahi diegu".

TXOSNAGUNEA OSPAKIZUNEZ BETETA

Txosnagunean hiru elkarte hartuko dute parte: **Asketa**, **Egape dantza taldea** eta **Poxta Zahar**. Txupinazoarekin batera irekiko dira txosnak, estreinaldirako Pintxo-potea abiaraziz.

Ostegunean, aldiz, urteroko patata tortilla txapelketa antolatu dute. Gau hori berezia izango da: **Gangster gaua**. Herritarrei mozzorrotuta agertzeko deia egin zien Egapeko **Eva Perez**ek.

Ostiralean oilasko afaria eta kontzertua antolatu dituzte. Larunbatean ere hiru talde igoko dira taula gainera.

Larunbat eta igandeko bazkari herrikoiak ere txosnagunean izango dira.

Irailaren 29 eta 30

Bertan bulegoa eta udaletxeko gainontzeko zerbitzuak itxita egongo dira

bertan herritarren arretarako bulegoa

Urnietako udala

EZ beti da EZ! Sanmioletan gozatu errespetuz

<p>NOLA JOKATU?</p> <ul style="list-style-type: none"> Jarrera/eraso matxistaren bat gertatuz gero, gelditzeko esan egiten ari den pertsonari. Erasoa/jarrera jasan duen pertsonarengana hurbildu eta laguntza behar duen galdetu eta bere erantzuna errespetatu. Inoiz ez utzi bakarrik, bere konfiantzako norbait etorri bitartean konpainia egin. 	<p>NORA DEITU ERASO BATEN AURREAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> Udaltzaingoa: 092// 943 00 80 90 (24 ordu) Gizarte Zerbitzuak: 943 008 000 (7:30etatik 15:00etara) Ertzaintza: 112 Eusko Jaurlaritzaren 24 ordu zerbitzua: 900 840 111 	<p>NORA JO BEHAR DUT ERASO BATEN ONDOREN</p> <ul style="list-style-type: none"> Herriko Osasun Etxea: 943 006 680 Etxeberri plaza 9-11 Larrialdiak: 112
--	---	--

“Ondo pasatzeko egunak dira Sanmielak”

ALEX RODRIGUES URNIETARRAK HERRIKO JAIK TXARANGAREKIN KAXA JOTZEN IGAROTZEN DITU. SANMIELEZ GAIN, BERE PROIEKTU PERTSONALEI BURUZ SOLASEAN ARITU DA AIURRIREKIN.

Jaiak gainean ditugu, gogotsu al zaude?

Urte asko dira ezin dudala Sanmieletan aktiboki parte hartu. Urtero txarangarekin jotzen dut kalejiran, txupinazoan, danborradan... Aurtengo jaietarako ere asmo bera dut. Ilusioarekin nago, herrian egongo naizelako nire jendearekin.

Gogoan duzu jaiet buruz duzun lehen oroitza?

Gogoan dut 1998. urtean, bost edo sei urte nituela, plazan kalejira zegoela buruhandi eta erraldoiekin. Bestalde, nire etxe aurrean jartzen zituzten barrakez ere gogoratzen naiz.

Txarangarekin parte hartu duzu maiz, zein da bestela gogoko dituzun ekitaldiak?

Urte askotan zehar, ezin izan dut ekitaldi guztietan parte hartu. 8-9 urte daramatzat txarangarekin jotzen, eta normalean, larunbat gauak okupatuta izaten ditugu, danborrada amaitu arte. Hurrengo egunean goizean goiz berriro jo behar izaten dugu, parrandarako aukera handirik gabe. Dena den, gutxienez kontzertuetara joaten saiatzen naiz.

Jaietan kaxa jotzea eta festaz gozatzea bateragarri al dira?

Bateragarriak badira. Kaxa jotzeaz gain, egunean zeharreko ekitaldietan edo gaueko festan parte hartu izan dut, baina oso nekagarria da. Eguna eta gaua, biak bizitzea zaila da, lo gutxi egiten duzulako.

Zer dira zuretzat Urnieta jaiak?

Gure herriko jaiak eta ondo pasatzeko egunak dira Sanmielak.

Idazlea, musikaria... Urnieta hain antzerkizalea izanik probatzera animatuko al zara?

Gidoi bat egiteko ideia izan dut, baina denbora faltagatik edo, orainoz ez diot horrelako proiektu bati ekin. Burutik proiektu asko pasatzen zaizkit, baina orain gehiegitan sartuta nagoenez, ez naiz antzerkiarekin hasi.

Mandragora Negra taldearekin zuzenean aritzen zara. Noiz hasi zinen?

Duela bi urte, Mandragora Negra taldeak bere lehenengo diskoa atera eta aurkezpen bira egin zuen. Disko berria prestatzen ari zirela, bateria-jole bila hasi ziren. Irungo ezagun baten bidez deia jaso eta baiezkota erantzun nien. Gustuko taldea izanik, proba egitea erabaki nuen. Horrela, “Imparable” diskoa atera eta kontzertu asko eskaini dugu: Bartzelonan, Zamoran, Salamancan, Madrilan... Musikari bezala, hori izan da eman dudana pausorik handiena.

Zein musika talde dituzu gustuko?

Metalaz gain, ska, reggae, jazz, musika klasikoa eta folk-a ere entzuten dut.



Idazle, musikari, kirolari... Alex Rodriguez urnietarra ekintzaile hutsa da.

Edozein musika mota inspirazio iturri da. Musika klasikoan edo euskal musikan ere nire taldera eraman dezakedan zerbait aurki dezaket. Estiloa aukeratze-kotan jazz-a aukeratuko nuke, kalitate handia behar delako eta musikari oso onak daudelako; eta talde bat aukeratze-kotan, Idi Bihotz. Txikitatik oso gogoko ditut.

Horrez gain, Urnieta talderik aipatuko al zenuke?

Palabras Muertas, Xabi Lopez bateria-jolearengatik sartu nintzelako bateria munduan. Nire begiralea izan zen Bosko Anitz aisialdi taldean eta berak motibatu ninduen. Gainera, 16 urterekin eman nuen nire lehen kontzertua eta Palabras

Muertas taldearekin elkarbanatu genuen eszenatokia.

Idatzi bai, eta irakurri? Zein liburu gomendatuko zeniguke?

Genero erreflexiboa idaztera bultzatu ninduen liburua “El caballero de la armadura oxidada” izan zen.

“Historia de una pluma sin tinta” liburuak segida izango al du?

Bigarren proiektuarekin hasi naiz jada, testuak idazten, elkarrizketak egiten... Ez dakit lehenengo liburuaren jarraipena izango den ala ez, baina idazten jarraitzeko asmoa badaukat. Liburu formatuaz gain, bideo formatuan ere zerbait egitekotan nabil. Azkenik, esan dezaket



Alex Mandragora Negra taldeko baterijolea da.

“Gogoko dut ekimen askotan parte hartzea eta ahal dudana leku guztietan zerbait eskaintzea”

proiektu honek irribarre asko aterako dituela, baina baita malkoak ere.

Zein sentsazio izaten dituzu liburu bat sinatzea eskatzen dizutenean?

Harritu egiten naiz eta pentsatzen dut: “Nik zuri, zergatik?”. Niri sinatu beharko lidakete, liburua beraiek erosi didatelako. Oraindik ez dut asimilatu liburu bat argitaratu dudala eta agian horregatik, sinatu behar izateak harritu egiten nau. Ilusio handia egiten dit, nik sortutakoa eurentzat nahi dutela esan nahi duelako.

Blogean idazten duzunetik, zein jarraitzailearen komentario harritu zaitu gehien?

Whatsappez jaso nuen mezu batek. Ezagun bat zen eta eskerrak eman zizkidan nire liburuari esker bere neskarekin zuen harremana konpondu zuelako. Niretzat hori jasotzea izugarria izan zen; zer esan ez nekiela geratu nintzen.

Kirola ezin alde batera utzi. Eskubaloiak zer du erakargarri zuretzat?

Eskubaloi mundua orain utzi egin dudana arren, izugarriko kirola dela iruditzen zait. Talde lana ezinbestekoa da, jokalariek guztien laguntzarekin lortzen direlako helburuak. Gustuko dut balore horiek haurrei transmititzea.

Saltsa askotariko perrexila sentitzen al zara hain jardunbide oparoarekin?

Gogoko dut ekimen askotan parte hartzea eta ahal dudana leku guztietan zerbait eskaintzea.

Zein edari duzu gustuko? Eta janari?

Betidanik, gozoa. Azukrea duen edozein edari: Coca-cola, Nestea... Janari dagokionez, pasta oso gogoko dut. Arraina izan ezik, beste guztia jaten dut.

Urnieta ez den beste tokiren batean, non biziko zinateke?

Urnieta antzekoren batean, deskonezio toki batean. Esate baterako, Anoeta oso gogoko dut. Herri txikia da, aldapa bat igota mendian galduta zaude.

Nori egingo zenioke zuri egin dizugun antzeko elkarrizketa?

Almudena Salas urnietarrari. Super H proiektua aurrera atera du eta borrokalari hutsa da. Niretzat erreferente bat da. Beti besteentzat lan egiteko prest dago, trukean ezer espero gabe, eta gainera, beti irribarre batekin dago.

Haur ikuskizunak

ESPERIENTZIA HANDIKO BI ANTZERKI KONPAINIA SAN JUAN PLAZAN ARITUKO DIRA OSTIRALEAN ETA LARUNBATEAN.



ZOOZOM, MARKELIÑE

IRAILAK 30, OSTIRALA. 17:00. SAN JUAN PLAZA

Kaleko antzerki emanaldia, familia osoari zuzendutakoa. Zoo parke modukoa eraikiko dute San Juan plazan.

Modu azkar eta errazean haur eta gazteak elefante, arrain, dinosaurio, flamenko edota lepaluze bilakatzen dira.



ASTOKILLO'S CIRCUS, PANTA RHEI

URRIAK 1, LARUNBATA. 17:30. SAN JUAN PLAZA

Plazan agerpena egingo du Zambulon feriantek, Rigoletto astoa eta Madame Zorita ondoan dituela. Zambulon asto esnearen balioa defendatzera da-

tor, zirkoko gag dibertigarriak eskainiz. Astoak, bestalde, nagusiari gogorazi nahi dio animaliek sentimenduak eta desioak badituztela.

Sanmielak 2016



Irailak 28, asteazkena

Txupinazoa

- 17:00** Mahai jokoen txapelketa Denda Berrin.
- 17:30** Erraldoi eta buruhandien kalejira, Plazido Muxikatik hasita Bosko Anitz txarangarekin batera.
- 18:00** Urnietako udalak 2016ko irailaren 1etik aurrera jaietako haurrei jaietako zapia jarriko die Kontzejupean.
- 18:45** Kanpai jotzea. Mielaren jaisiera elizako kanpaidorretik udaletxera.
- 19:00** Txupinazoa Antton Jauregiren eskutik. Batukada plazatik txosnagunera Buruntzantzan eta Funkyko taldearekin. Txosnen irekiera eta pintxopotea. Bosko Anitz txaranga herriko kaletan zehar.

Irailak 29, osteguna

San Miquel eguna

- 09:30** Diana, Txanbolin.
- 10:45** Udal korporazioa udaletxetik elizara.
- 11:00** Meza Nagusia.
- 12:00** Udalaren omenaldia Egape ikastolari bere 50. urteurrenean.
- 12:30** Txanbolin bandaren musika eta dantza emanaldia ikastetxeetako ikasleekin plazan.
- 14:00** Adinekoen bazkaria Oianumen.
- 17:00** Haurren karaokea txosnagunean.

- Koadrila arteko futbito txapelketaren finalak Egape ikastolan.
- 18:30** Martin Mujika XXII. Pilota jaialdia. Erremontean: Ansa-Zaldua // Goioetxea-Zubiri. Esku-pilota afizionatuak: Santxo-Gorrotxategi eta Ojuel-Erasun.
- 18:30** Erromeria plazan: Fan & Go. Gangster gaua iragarrita dago txosnagunean.
- 20:30** Tortilla lehiaketa txosnagunean.

Irailak 30, ostirala

Haurren eguna

- 09:30** Diana, Txanbolin banda.
- 10:30** Alkate Txikien izendapena: Alain Ugarte Beristain eta Paula Segurado Erasukin. Aurrera Gure Ametsa taldeko ki-deek belauntxingoa dantzatuko dute.
- 11:00** Haur eta gazte parkea Egape ikastolako jolastokian.
- 11:30** Kontzejupeko eskupilota txapelketaren finalak.
- 16:30** Haur eta gazte parkea Egape ikastolako jolastokian. Puzgariak eta jolas-aparatuak.
- 18:00** Poxta Zahar desafioa Idiazabal kalean.
- 17:00** "Zoozom" Markeliñeren famili ikuskizuna plazan.
- 18:15** Erraldoi eta buruhandien kalejira.
- 19:00** Diskofesta plazan: DJ Jon Urbietta.

Gaztelo
GOZOTEGI ARTISAUA
BONBONERIA

Gora Sanmielak!

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584

50 urte biziak
EGAPE IKASTOLA

SANMIELAK 2016

Jai zoriontsuak igaro!

www.egape.org
www.egapebhi.org

Logoa: Maitane Bernardo

Jai egitaraua

- 20:00** Alkate Txikien botere uztea udal-letxean.
21:00 Oilasko-afaria txosnagunean.
23:00 Diskofesta plazan: DJ Urbieta.
23:30 Kontzertuak txosnagunean: Kale-
 ra, Las Tea Party DJ's.

Urriak 1, larunbata

Koadrilaren eguna

- 09:30** Diana, Txanbolin banda.
09:30 Probintzia mailako bolo txapelketa. Haurren Kontzejupeko txapelketaren finalak.
12:00 Apar festa plazan, eguraldi onarekin.
12:00 Sardina jatea Plazido Muxika plazan.
12:00 Koadrilaren txarangaren lehen irteera plazatik.
12:30 Trikipoteoa herrian zehar.
12:30 Ardo eta paella dastaketa plazan.
14:00 Emakume koadrilaren bazkaria kiroldegiko tabernan.
14:30 Bazkari herrikoa txosnagunean.
16:00 Urnietako III. Txirringitaritza kriteriuma Idiazal kalean.
16:30 Haurrentzako Gynkhana Plazido Muxika plazan.
17:00 Artisau azoka plazan. Heldu eta haurrentzako jolasak.
17:00 Poxta Zahar karaokea txosnagunean.
17:00 Koadrilaren txarangaren bigarren irteera.
17:30 Astokillo Zirkus haur ikuskizuna plazan.
18:00 Iribarren orkestra Plazido Muxika plazan.
18:30 Elektrotzaranga kamioia Idiazabal kalean zehar.
19:00 Urdanborren irteera Plazido Muxikatik.
19:00 Dantza ikuskizuna Saroben Aurrera Gure Ametsa eta Baxenafarroako Bithindarrak elkarteek eskainia.
19:00 Errenazimendu garaiko kontradantzen erakustaldia.
19:15 Elizan Urdanborren saioa.
20:00 Musika plazan, Custom.
23:30 Urdanbor, bigarren irteera Idiazabal kaletik.
23:30 Kontzertuak txosnagunean: Egu-
 rra ta kitto, En Tol Sarmiento,
 Bad Sound Sistem.

Urriak 2, igandea

Baserritarren eguna

- 10:00** Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.
10:30 Perurekin gobernuz kanpoko erakundeak txorizo eta sagardo postua jarriko du San Joan plazan.
11:00 Haur danborradaren hasiera.
11:00 Meza Nagusia eta ebangelioen irakurketa Mikel Goiaingeruaren elizan Errosarioko amaren eguna ospatuz.
12:00 Egapedanbor eta Presentación de Maria haur danborradaren elkargunea San Joan plazan.
12:30 Plazido Muxika plazan.
12:30 Ingurutxoa eta XV. Jalgi Plazara jaialdia Aurrera Gure Ametsa eta Bithindarrak elkarteek eskainia San Joan plazan.
12:30 Errenazimendu garaiko kontradantzen erakustaldia.
12:30 Toka txapelketa plazan.
14:30 Bazkari herrikoa txosnagunean.
16:30 Bertso emanaldia: Nerea Elustondo, Uxue Alberdi, Unai Muñoa, Ander Lizarralde eta Miren Amuriza. Ondoren, Jokin Lizeagari Urnietar Prestu 2016 izendapena.
17:30 Zaldi proba probalekuan.
17:30 Trikitilariak kaleetan zehar.
18:00 Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa plazan, Pausokaren alde.
18:00 Dantzaldia Egan taldearekin.
18:30 Arratsalde akustikoa txosnagunean: Galtzertien poligamia, Bi zaldi, Peputz, Physis.
18:30 Willy Etxeberria memoria, zesta punta jaialdia pilotalekuan: Lertxundi-Andonegi eta Goixerri - Manzisidor.
19:00 Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa plazan.
20:30 Dantza-Soka herrikoa, Egapek antolatuta plazan.
21:00 Mielari agurra.
21:15 Zezen suzkoak.
21:25 Azken traka erretzea eta erromeriaren jarraipena.
 Jai amaiera.

[EGITARAU, EGUNEZ EGUN: AIURRI.EUS]

Kontzertuak

TXOSNAGUNEAN HAINBAT MUSIKA TALDE GIROA SUSTATZEN AHALEGINDUKO DIRA, EGUN EZBERDINETAN



LAS TEA PARTY DJ'S

IRAILAK 30, OSTIRALA. 23:30. TXOSNAGUNEA

Bilboko bikotea elektrosoinu ezberdinetan arrakasta lortzen ari da.



BAD SOUND SYSTEM, EN TOL SARMIENTO

URRIAK 1, LARUNBATA. 23:30. TXOSNAGUNEA

Musika estilo ezberdinak eskainiko dituzte bi taldeek, guztiak ere dantzagarriak.



ITXASPE **sanmiel**
jai
ZORIONTSUAK!
FRUTATEGIA, IZOZKIAK ETA GOZOKIAK
Zelaialde, 2 • URNIETA TEL.: 943 009 427

SENDA BELARRAK
ELORRI
HERBODIETETICA
Ondo pasa Sanmielak
 Yurramendi, 19 © 943 556 437 - 20130 Urnieta

Jaien atarikoak

Urdanbor entseguak



Urriaren 1ean, larunbata, Urdanbor danborradak herriko kaleak alaituko ditu.

Entseguetan duela hamar egun hasi ziren eta ostegun honetan egingo dute azken aurrekoa. Jaietako larunbatean arratsaldeko 19:00etan abiatuko dira Plazido Muxika plazatik. Afalostean, 00:00ak aldera bigarren txandari ekingo diote.

Entsegu orokorra datorren astelehenean (irailak 26) egingo dute San Juan plazan, iluntzeko 20:00etan hasita

Jaien atarikoak

Pintura lehiaketa



Iñaki Aranzadiren erretratuarekin, Jon Jauregik irabazi zuen iazko pintura lehiaketa.

Pintura lehiaketa hogeigarren edizioa iritsi da. Parte hartzaileek igande honetan goizeko 09:00etatik 10:00etara bitarte Saroben izena eman ahal izango dute. Saridunen berri arratsaldeko 19:00etan jakinaraziko da.

Sariak:
1. saria: 750 euro
2. saria: 450 euro
1. urnietarra: 300 euro

Dantza-soka entseguak



Urriaren 2an, iluntzeko 20:30ean, Dantza-soka izango da San Juan plazan.

Edu Muruamendiarazen zuzendaritzapean Dantza-sokan parte hartu nahi duten herritarrek entseatzeko hiru au-

kera izango dituzte datozen egunetan. Irailaren 22an, 26an eta 27an iluntzeko 19:00etatik 20:30era Saroben.

Extremadurako jaia



Iazko koru eta dantza ikuskizuna, Urrietako jaien atarian.

Extremadura aldeko produktuez gozatzeko aukera berria izango da, igande honetan Urnietan. Eta pro-

duktuen dastaketa giotzeko, Donostiako Virgen del Guadalupe taldeak emanaldia eskainiko du 12:00etan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
 POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

CERAMICAS NOGALES S.L.

URNIETA

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Ondo pasa Sanmieletan

Errekalde, 10
 20130 Urnieta
 Tel./Faxa: 943 009 284
 Tel.: 943 550 624
 ceramicasnogales@ceramicasnogales.com

Jaien atarikoak Gabon Txirrita



Ostiral honetan gaueko 22:00etan hasita, Gabon Txirrita antzezlanaren kiroldegian. ©ArgazkiPress

Donostiako estreinaldian ikusle gozatuak eta kritikaren txaloak jaso ondoren, urnietarren aurrean arituko dira. Lantaldearen gehiengoarentzat saio berezia izango da, emanaldia herrian bertan delako.

Gabon Txirrita eta 400 Istorio ikuskizunetarako azken sarrerak ordu bete lehenago salgai ipiniko dituzte, Kiroldegiaren sarreran

400 istorio



Larunbat honetan iluntzeko 20:00etan hasita, 400 istorio ikuskizuna kiroldegian.

Mendeurrenari lotuta, eta azken urteetan egindako hiru antzezlanen pasarteak uztartuta, ikuskizuna eskainiko dute

kiroldegian. Musikariak eta dantzariak zuzenean, ikus-entzunezko ezberdinekin aberastuta.

Pintxo-potea txosnen irekieran

ASTEAZKEN ILUNTZEAN PINTXO-POTEA ESKAINIKO DUTE TXOSNAGUNEKO HIRU TABERNATAN.



Pintxo-potearekin jendetsua izan daiteke aurtengo txosnen irekiera.

Patata tortilla eta oilasko jatea

JAIETAKO LEHEN BI GAUETAKO OTORDUETARAKO TXARTELAK ALDEZ AURRETIK EROSI BEHAR DIRA.

Patata tortilla lehiaketa

IRAILAK 29, OSTEGUNA. 20:30.
TXOSNAGUNEA

Dagoeneko txartelak salgai daude Amaiur, Kantoi eta Xauxar tabernetan, 2 eurotan. Prezio horretan edaria, ogia eta mahaia sartzen dira. Patata tortilla, koadrila bakoitzak berea egin beharko du txosnagunean bertan.

Oilasko jatea

IRAILAK 30, OSTIRALA. 21:00.
TXOSNAGUNEA

Txartelak erosteko epea irailaren 28an amaituko da Xauxar, Guria eta Kantoi tabernetan. 16 euroko txartelarekin bi lagunek afalduko dute: Entsalada, oilaskoa, edaria, ogia eta bi aulki.

**Urnietan hazi,
on bizi
eta erosi**
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

on bizi
urnieta

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Irrintzi lehiaketa plaza bakarrenetakoa

HAIN GUREA DEN ADIERAZPENA JENDAURREAN ERAKUSTEKO PLAZA GUTXI DAGO GAUR EGUN EUSKAL HERRIAN.



İnistorrek zortzigarrenaz antolatuko du Irrintzi lehiaketa.

Urriaren 2an, igandearekin, İnistor Egunean Maria Arizmendiren izena duen irrintzi lehiaketa antolatuko dute. Euskal Herrian oso plaza gutxi dira irrintziari eskainitakoak, eta horregatik Urnietakoak eskualdetik kanpo arreta berezia pitzen du. İnistorrek hain gurea den ohiturari eutsi nahi dio, eta horretarako gazte eta

helduen mailako lehiaketak antolatzen ditu. San Juan plazan izango da, iluntzeko 19:00etan hasita.

Iaz, Urnietan maiz nagusi izandako **Nerea Arriaga** oriotarrak aurkari gogorrek izan zituen. **Ana Gabirondo** urnietarrak eta **Aitziber Santamaria** aramaiotarrak, esaterako, oso maila ona erakutsi zutelako.

Argazkiak, bideoak aiurri.eus gunean

ARGAZKI-BILDUMAK, BIDEOAK EDOTA EGUNEZ EGUNEKO EGITARAUA WEBGUNEAN ESKAINIKO DIRA.



Iazko herri bazkaria Txosnagunean.

Aiurrik Urnietako jaien jarraipena egingo du, astekariaren bitartez eta baita internet bidez ere. Hurrengo asteetan paperezko edizioan tarte zabala hartuko dute jaietako hainbat hitzorduk eta protagonistek. Internet edizioan, bestalde, jai buruzko informazioa eskainiko da egunero.

Egitarauaren berri egunez egun emateaz gain, aurreko eguneko argazki-bildumak, bideoak eta albiste nabarmenenak eskainiko dira.

Aiurri.eus webgunea erreferentzia nagusia izango bada ere, Facebook edota Twitter bidez ere jai buruzko informazioa zabalduko da.

İnistor jaietan bazkaria



Ohi denez, bertso saioak ere ez du hutsik egingo.

İnistor jaiak

URRIAK 2, IGANDEA. TXOSNAGUNEA, SAN JUAN PLAZA

Euskaltzaleen ospakizuna egin ohi du urtero İnistorra euskaltzaleen biltzarrek. Tokarekin hasi eta segidan bazkariari ekingo diote. Eta bazkalostean dator ekitaldi esanguratsuen, Urnietar Prestu izendapena. Aurtengoan Jokin Lizeaga mendi lasterkariari egingo diote omenaldia.

Herri bazkaria

URRIAK 2, IGANDEA. 14:30. TXOSNAGUNEA

Irailaren 28ra bitarte txartelak salgai daude Kantoi, Guria eta Bikain kafetegian.

- Helduen menua (25 euro): entsaladilla, itsas kabra, karrillerak, hojaldrea, kafea eta kopa.
- Haurren menua (16 euro): makarroiak, eskaloopa, izozkia.

OIHANA IGUARAN
OSKAR ESTANGA

BERTSO AFARI MUSIKA-TUA

IRAILAK 24 OIANUMEN

MENUA 25€
SARRERAK SALGAI
XAUXAR ETA KANTOIEN

LAGUNTZAILEA ANTOLATZAILEAK

POXTA ZAHAR
MUXUGOXO
İNİSTORRA
BURUNTANTZAN



KIROL ALBISTEAK

Eskubaloia, aurkezpena



Aurreko larunbatean UKEko eskubaloia saileko taldeen aurkezpena egin zuten. Taldekako

argazkiez gain, denek batera familia-argazkia atera zuten Udal kiroldegiko harmailetan. Klu-

beko zenbait jokalarik Egapeko dantzariekin batera Aureskua eskaini zuten.

Baloia jokoan da

Erregional Preferente

1. jardunaldia

Emaitzak:

Trintxerpe 1-3 Euskalduna

Urnieta 1-2 Mariño

Orioko 5-1 Behobia

Sailkapena, 1. jardunaldia:

1. Orioko

2. Allerru

3. Euskalduna

12. Urnieta

16. Behobia

3

3

3

0

0

2. jardunaldia, asteburuan:

Irailak 24-25:

Behobia-Urnieta

Larunbata, 24. 17:30.

Euskalduna-Mundarro

Larunbata, 24. 17:45.

UKE pilota saileko emaitzak

ARRASATE 9-22 URNIETA

Eskuz binaka, jubenilak

Alain Urria-Aitor Aldunberri

Debuta jubenil mailan eta ondo baino hobeto moldatu ziren garaipen argia eskuratuz.

URNIETA 17-25 ZESTOA

Gomazko paleta, seniorrak

Jon Iturbe-Unai Arozena

Ordubete luzez aritu ziren jokoan, partida benetan gogorra. Maila ona erakutsi zuten arren, maila beretsuko aurkariari gaitztea kosta egiten ari zaie.



Unai Arozena eta Jon Iturbe.

URNIETA 35-32 OIANGU

Larruzko palea, seniorrak

Mikel Jauregi-Beñat Txapartegi

Euren mailatik askoz apalago aritu ziren eta ia-ia partida galtzear izan ziren. Markagailuak 21-31 adierazi zuenean, partida irauli egin zuten.

TXOST 24-35 URNIETA

Larruzko palea, seniorrak

Aitor Argiñarena-Xabier Garagorri

Lehen jardunaldian 35-34 galdu arren, bikote indartsua osatzen dute eta lehen postuetan aritzeko hautagai dira.

Emeki-emeki Bartzelonan



Andoingo korrikalariak Bartzelonako lasterketaren afitzaren ondoan.

Emeki-emeki taldeko hamar kidek Bartzelonako Cursa de la Mercè lasterketa famatuan hartu zuten parte, aurreko asteburuan. Esan beharrik ez dago ederki gozatu zutela emakumeek Bartzelonako egonal-

dian, gogoko duten kirola egiteaz gainera. 10.000 korrikalari izan ziren Bartzelonako kale nagusiak hartu zituztenak; bizi-bizi batzuk, motelago besteak, baina denek ere lasterketa osatuz.

Buruntza mendiari itzulia



Ontzako mendizaleak hamaiketakoaren garaian ageri dira.

10 kilometroko mendi txangoa egin zuten Buruntza mendian larunbatean, Ontza elkarteak antolatuta. Eguraldia kaskarra izan zuten partaideek, maiz aterkia zabaldu behar izan zutelarik. Nolanahi ere, umorerik ez zuten galdu, eta San Rokeko aterpean hamaiketako ederraz gozatzeko aukera eduki zuten. Bere so-

rreraren 75. urteurreneko ospakizunekin jarraitzen du Ontza elkarteak, eta Euskal Herriko sagardo txapelketa izango da hurrengo hitzordua. Irailaren 24an, Zumea plazan ospatuko da txapelketa. Txartelak salgai daude elkartean bertan, eta baita Ondarreta eta Txuribeltz tabernetan ere.



DATORREN AIURRI ASTEKARIAN URNIETA KE FUTBOL TALDEEN ARGAZKIAK ETA PARTAIDEAK



ANDOAINDARRA EUSKARAZ EGUNA, LARUNBAT HONETAN GOIKOPLAZAN

Egun osoko festa jarraitzeko gida praktikoa

Larunbat honetan, irailak 24, hilabete luzez prestatzen aritu diren Andoaindarrak Eguna ospatuko da Goikoplazan. Ekitaldiak bata bestearen atzetik burutuko dira, goizetik gauera.

Izartxo aisialdi taldeak antolatutako tailerrekin abiatuko da eguna. Herritarrek Goikoplaza aldera abiatzeko diana, bestalde, ikusgarria izango da.

BEZPERAN HITZALDIA

Ostiral honetan, irailak 23, frankismo garaian Larramendi antzerki taldeari buruzko mahai-ingurua antolatu dute Basteron. Euskara galerazita zegoen garaian buruzko pasadizo ugari entzun ahal izango da Eloi Artolazabal eta Larramendi antzerki taldeko hainbat kideren ahotik. 19:00etan hasiko da, eta sarrera doakoa da.

TAILERRAK, ARGAZKIAK

10:00etan Izartxoren eta Ludotekaren eskutik eskulanak egiten hasiko dira haur eta gazte txoak. 11:00tan emango diote hasiera argazki-rallyari, nola ez, euskararen eguna ardatz hartuta. Bi maila izango dira, haur-gazte eta helduena eta lehen hiruzentzat sari bana izango da.

DIANA

Ikusgarria izango da: Karrikatik Axeri-dantza eta txistulariak, Juanita Alkaindik Katramila eta Soinuak.



KONTZEJUPEKOA

Neska-mutilak eskupilotan arituko dira, joko bizia eta azkarraren ahalbidetzen duen frontoi berezian.

SAGARDO KATA

Sagardoaz zertxobait ikasteko aukera izango da Irati Amon-

darainen eskutik. Adi, parte hartzeko txartelak aldeztatik erosi behar dira eta.

MARMITAKOIA, PATATA TORTILLA

Horixe izango da antolakuntzak Goikoplazan eskainiko duen "menua". Marmitakoa elkarrekin prestatuko dute, eta

razio bana 3 eurotan salgai izango da.

Patata-tortilla pintxoak lehiaketakoak izango dira, herritarrek etxean eginda aurkeztu beharko dutena. 0,5 eurotan salgai jarriko dira.

Bazkarirako sagardoa eskainiko dute.

MUSIKA, ANTZERKIA

Herrikideak bazkaltzen ari direla Udal musika eskolako "Fino's band" konboak saioa eskainiko du. Mailu Arrutik eta Ane Huizik euren aldetik kale antzerki saioa eskainiko dute.

GAZTESELFIE, EROMERIA

Gazte Lokalak argazkiei loturiko lehiaketa antolatu du. Jarraian, euskararen eguneko kantarekin dantza egin ahal izango da. Ondoren, euskal dantza saio gidatua Jon Iraolaren eskutik.

PINTXO POTEIA

Pintxoak, kantuak eta bertsoak. Goikoplazako tabernez gozatzeko aukera bikaina.

BASQEXTREMFOLK

Musika, dantza eta antzerki ikuskizuna, Andoaindik Andoainera egindakoa.

PERKUSIO IKUSKIZUNA

Danbor eta suziri hotsak jaiari amaiera emateko.

HASIERA EUSKARA ANDOAINEN ALBISTEAK ARGAZKIAK ETA BIDEOAK




andoaINDARRA
euskaraz.eus



I. andoaINDARRA
euskaraz
eguna

Irailak 24
ANDOAIN
GOIKOPLAZA

EUSKARA ZERBITZUA EUSKARAZ BIZI ▾ HAURRAK ETA GAZTEAK ▾ GURASOAK ▾ DIRULAGUNTZAK ▾ KIROLA EUSKARAZ ▾ RAKS



ANDOAINDARRA EUSKARAZ EGUNA, LARUNBAT HONETAN GOIKOPLAZAN



andoaINDARRA
euskaraz
eguna

Irailak 24
ANDOAIN
GOIKOPLAZA

2016

- 10:00** Umeentzako lantegiak
- 10:30** Herrian zehar DIANA
- 11:00** Argazki-rallyan izen ematea
- 11:30** Herriko elkarte gastronomikoek MARMITAKO erraldoiaren prestaketan hasiko dira
- 12:00** Neska eta mutilen pilota partidak Kontzejupean
- 12:30** Sagardo KATA Irati Amondarainek gidatuta (aurretik tiketak erosi ATARIAn)
- 13:30** Patata tortilla lehiaketa (etxetik ekarri egina)
- 14:00** MOKADU tartea (marmitakoa + patata tortilla)
- 14:30** Musika: Fino's Band
- 16:00** DINGO!!
- 17:00** Gazteselfie
- 19:00** EROmeria
- 19:30** Pintxo poteoa + kantu kalejira + bertsolariak
- 22:30** BasqExtremFolk musika eta antzerki ikuskizuna
- 23:30** Zo-zongo!!! ikuskizuna



ANDOAINGO
UDALA
Euskararen
Normalizaziorako
Lansaila

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Bizimutua
LARRAMENDI

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzak

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Unistaketa

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etze etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 22TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain

■ **Cuerpo de elite:**

Irailak 24: 19:30, 22:00.
Irailak 25: 19:30.
Irailak 26: 19:30, 22:00.

■ **Buscando a Dory,**

haurrentzat:
17:00. Larunbata, igandea.

Ikastaroak

Andoain

■ **Zuena elkartearen** eskutik: yoga, pilates, tai chi, maki-lajea, sendabelarrak, arropa konpontzeko ikastaroak, josten ikasteko ikastaroa, eskulanak, musika...

Irailak 19-25:
Matrikula egiteko epea.
Informazioa: 606 929 697.

■ **Andoaingo AEK euskaltegia:**

Klaseak, guraso taldeak,... Jaurlaritzak diruz lagunduta, maila egiaztatuz gero. Andoaingo Udalak matrikularen %75a finantzatzen du. Matrikula egiteko epea: Irailak 29. Informazioa: 943 59 17 04. andoain@aek.eus

Urnietan, Sarobe

■ Urnietako antzerki tailerra.

Epea: Irailak 30. Orduetgia: Ostiralero, 19:00-21:00. Hilean behin, larunbat goizez tailerra.

Hitzaldia

Andoain, Bastero

■ **Larramendi** antzerki taldea gogoan, mahai-ingurua. 19:00 Ekitaldi aretoa. Irailak 23, ostirala.

Antzerkia

Urnietan, Kiroldegia

■ **Gabon Txirrita** emanaldia. 22:00 Kiroldegia. Irailak 23, ostirala.

Ikuskizuna

Urnietan, Kiroldegia

■ **400 istorio** musika eta dantza ikuskizuna. Bideo pasarteak elebitan. Sarrerak salgai: Sarobe. 20:00 Kiroldegia. Irailak 24, larunbata.

Bertsoak

Urnietan, Oianume

■ Bertso musikatuak **Estanga** eta **Iguaranen** eskutik. Kantoi eta Xauxar. 21:30 Oianume. 25 euro. Irailak 24, larunbata.

Farmaziak

Eskualdea

■ Andoain: **Gorospe**. R.Arregi. Urnietan: **Aguado**. Astigarraga. ■ Gaez: **Urrutia**, Hernani. Etxeberrri, 1. Florida. Irailak 24, 25.

Lehiaketak

Andoain

■ **Euskal Herriko Sagardo txapelketa**, finala. Afaltzera hurbiltzen direnak epaimahaikide dira. Txartelak: Ondarreta, Txuribeltz, Ontza. 20:00 Zumea plaza. Irailak 23, ostirala.

Urnietan, Sarobe

■ **XX. Pintura lehiaketa**. 09:00-10:00 Izen-ematea. 16:30-17:30 Lanak aurkezteko epea. 19:00 Sari-banaketa. Irailak 25, igandea.

Irteera

Andoain

■ **"Bi andoaindar, eliza bat"**, ondarea hizpide duen ibilaldia. 09:45 Goikoplaza. Irailak 25, igandea.

Ospakizuna

Urnietan

■ **Iñistor jaia**, euskaltzaleen ospakizuna. Herri bazkari-rako txartelak salgai. Urriak 2, igandea.

Afaria

Urnietan

■ 1976an Urnietan jaiotakoei deialdia luzatu nahi diete: 1976kintoak@gmail.com Urriak 8, larunbata.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Aitonak irailaren 8an 76 eta **Maddik** 15ean 6 urte bete dituzte. Jarraitu horrela goxo-goxo. Muxu potoloak etxekoan partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



June Etxeberria Arratibek 9 urte beteko ditu irailaren 28an. Egun polita pasa, disfrutatu! Zein handia egiten ari zaren. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak Maialen! Etxeko printzesak 9 urte beteko ditu, opariak irekitzeko prest. Muxuak, etxekoan partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Xabat eta Galdere gure bixki pareak dagoeneko 3 urte irailaren 30ean. Zorionak etxekoan partetik..

ANDOAIN



ZORION AGURRAK AIURRIN Erraza da, eta dohainik. Email: diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

Sinadura bilketa

Urnietan Bizirik mugimendua Change.org webgunean Zubietan erraustegirik ez jartzeko sinadura kanpainari

ekin diote. Eskaera, zehazki, Markel Olano Ahalduen Nagusiari zuzenduta dago. Bi milatik gora lortu dituzte.

Lankidetzaren hitzarmenak

Urnietako Udalak lankidetzaren hitzarmenak sinatu ditu **UKE Urnietan Kiroi Elkartearekin**, **Eguzki xake taldearekin** eta **On Bosko bandarekin**. **UKEk** Udala kiroldegiko instalazioak erabilgarri izango ditu entre-

namenduetarako eta baita lehiaketetarako ere. Eguzki xake taldeak Urbita kaleko 6. zenbakian Udalak utzitako lokala izango du eta On Bosko bandak urtean zehar hainbat emanaldi eskainiko ditu.

Andoaingo Udalaren eta DGTren arteko hitzarmena

Udalak eta DGT trafiko zuzendaritzak ibilgailuak Andoainen erregistratzea errazteko hitzarmena sinatu dute: "Hemendik aurrera udalerriaren erroldatuko diren herritarrek, edo aurretik erroldatu eta oraindik bere ibilgailuak beste herrietan erre-

gistratuta dituztenek, ibilgailuak Andoainen helbiderratzeko ez dute Donostiako Trafikora joan beharrik izango; nahikoa izango dute bere jabetzako ibilgailuen zirkulazio baimenarekin Ataria herritarrentzako arreta zerbitzura hurbiltzea".



#I25hauteskundeak

LEHENDAKARITZARAKO HAUTESKUNDEAK, TOKIKOTIK

Igandean emaitzak **aiurri.eus** webgunean

Dagoeneko hainbat informazio eskura, **Gure gaiak** atalean

aiurri.eus/Gure_Gaiak/Lehendakaritzarako_Hauteskundeak16